

# Berri... ara



Nazioarteko 12 talderen  
ikuskizunak V. Mostran

## Txotxongiloen magia

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa 2/g.  
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).  
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Maiatzak 20 eta 21

# FERRITUR

DEBAGOIENENKO I. TURISMO AZOKA

**ARRASATE UARCAPE** *Frontoia*

ORDUTEGIA 10:00 - 15:00 / 16:30 - 21:00

Sarrera Dohain



## BIDAIEN ZOZKETA

Antolatzailea

Laguntzailea

  
04.37-03  
**HALCON**  
BIDAIK

DEBAGOIENENKO  
MANKOMUNITATEA



Herbaila 9. Tel. 943 79 15 03



## Play station

Nora Palmitano / Langilea

**J**aunartzeak direla eta, Play station jostailuaren salmenta igo egin da, nonbait; bideo-kontsola delako hori eta bertan erabiltzeko bideo-jokoak. Oparia aukeratzeko orduan harrera on ziurra izango duen bakarretariko bat.

Gazte batzuk ditut lagunak eta horien bidez izan dut zorioneko tramanakulua ezagutzeko aukera. Arrakasta handia lortu du oso denbora gutxian eta oso adin-tarte zabalean.

Beste ume guztiek izatea izango da, ziur aski, gure gaztetxoei erosteko arrazoia, bestelako argudio hoberik ez baitzait bururatzen.

Aitortu behar dugu jolasa dela ikasteko bide nagusia, azkarrena eta errazena adin txikikoen artean. Onartu behar dugu, halaber, egoera eta tresna guztietatik zerbaite ikasten dutela. Azter dezagun, beraz, bideo-joko honek ikasteko eskaintzen duena.

Has gaitezen edukietatik: zeintzuk diren pertsonaiak, zeintzuk hauek kokatzen diren egoerak, eta azken hauen

garapena. Ezagutu ditudanak futbol-partidua, eski-lehiaketa, eski bakarreko lehiaketa, eta ezagutzen ez dudan ibilgailu batzuek tuneletan edo lur azpian jokatutako norgehiagoka. Pertsonaiak ahalguztidunak dira, kristoren kolpea edo istripua izan ondoren, berehala jai-ki eta, ezer gertatu ez balitz bezala, jarraitzen dute. James Bondek baino bizitza gehiago dutela dirudi.

Norgehiagoka horretan den-denak balio du. Ez dago araurik, ezta zigortutako jokaldirik ere. Edozein estrategiak, garbia zein zikina, balio du. Garrantzitsuena nola edo hala irabaztea da.

*"Beste ume guztiek izatea izango da, ziur aski, gure gaztetxoei play stationa-erosteko arrazoia, bestelako argudio hoberik ez baitzait bururatzen"*

Horiek edukiak, baina zeintzuk abilezia garatzen dituzte gure gaztetxoei jolas berri honekin? Gazteek komando bat dute esku-artean; komando horretan hainbat botoi. Hauen bidez abiadura, norabideak, jauziak kontrolatzeaz aparte, lehergailuak, oztupoak eta abar jartzen dizkiote aurkariari. Abilezia erreflexuetan dago. Ez dago pentsatzeko astirik, pentsatuz gero, aurrea hartuko digute edo eztanda eragingo digute.

Zenbat ordu egunean trebatzen dira gure umeak pentsatu gabe funtzionatzen?

Honekin ez dut dramatizatu nahi. Seguru asko beste hainbat jostailuren bidez pentsamendua, solidaritatea, elkarlana eta bestelako baloreak bereganatuko dituzte.

Eta dituzten beste jostailu guztiekin aipatutakoak bereganatzen ez badituzte ere, ez gara gehiegi kezkatu behar. Gaur egungo gizarterako ondo prestatuta egongo direlako seinalea izango da.<

### barruan



#### Idoia Olano

Jarduneko idazkria

*"Jardunek hartu eman zuzenagoa izango du aurrerantzean bazkidekin"*

8.



#### Eneko Iturrospe

Beti-Busti elkartekoa

*"Piraguarekin ondoan ur-bizietan moldatzen naiz. Itsasoan ez naiz horrenbeste ibili"*

23.



#### Alex Labaien

Udal Euskaltegiko irakaslea

*"Euskaraz ikasteko garrantzitsuena nahi izatia da, konpromisua hartzea"*

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK



## BEKAK

### Kanpo Merkataritza.

Eusko Jaurlaritzak 30 urtetik beherako goi-mailako titulatu unibertsitarioak. Hizkuntzak menperatzea. Kanpo merkataritzan adituak formatzeko diru laguntzak. Epea: ekainak 3.

### Leonardo da Vinci.

Confebask. 28 urtetik beherako unibertsitario edo titulatu berriak. Lan esperientzia gabeak. Atzerriko enpre-tan praktika-bekak. Epea: uztailak 14.

## IKASTAROAK

### Udako Euskal Unibertsitateak;

28. ikastaldia: Gaiak: Artea eta Komunikazioa, Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientziak. Epea: ekainak 16.

### Udako ikastaroak.

EHU. Mintegiak, jardunaldiak, ikastaroak. Gaiak: Medikuntza, Hezkuntza, Internet, Zuzenbidea, Psikologia, Hizkuntzalaritza eta abar. Izena emateko orriak Gazte Informazio Gunean. Epea: maiatzaren 3tik aurrera.

## SARIAK

### Iparragirre saria.

Zumarraga eta Urretxuko udalak. Narratiba eta poesia. Mailak: gazteak (15-18 urte) eta helduak (19tik gora). Epea: uztailak 14.

**Gaztebideo Jaialdia.** Gasteizko Indar Kulturagunea. 1999-2000 ikasturtean era ez profesionalean filmatutako lanak. Antzezleek gehienez 21 urte izan behar dituzte. Epea: uztailak 31.

## LAN-ESKAINTZAK

### Bitarteko funtzionarioak.

Eusko Jaurlaritzak. Plazaren arabera ikasketak. Justizia administrazioan ofizial, laguntzaile eta agente lanpostuetarako lan-poltsak. Epea: ekainak 1.

### Euskarra itzultzailea.

Ibarra Udalak. Erdi mailako ikasketak unibertsitarioak, euskarako H.E. 4. Lehiaketa-oposaketa bitarteko behin-behineko plaza. Egun erdiko jarduna. Epea: maiatzak 29.

### Ettxeko laguntzaileak.

Soraluzeko Udala. Eskolaratze Ziurtagiria, euskarako HE 2. Egun erdiko jarduna. Epea: maiatzak 25.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunea.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE  
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)  
TELEFONOA: 943 77 91 57.  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00  
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke **Gazte Informazio Gunea** igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



JOSU OKINA

### Erretapua, erretrapua

Sasi-mediku edo kuranderoek unjentuz-eta prestatu ohi dituzten errearentzako, ebagientzako eta halakoentzako trapuak.

- *Ermuko kuranderiak ipiñitako erretrapuekin osatu jakon besoko eridia.*

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 11</b>	18	12,5	-	19	14	-
<b>Eguakitza 12</b>	18	9,5	2,4	23	10	1,2
<b>Zapatua 13</b>	23	13	-	27	10	-
<b>Domeka 14</b>	24	11	-	31	10	-
<b>Astelehena 15</b>	22	16,5	-	27	14	-
<b>Martitzena 16</b>	20	13	1,1	24	12	0,4
<b>Eguaztena 17</b>	11	8,5	-	16	13	0,5

## Farmaziak

### Eguakitza 19:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Zapatua 20:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Domeka 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Astelehena 22:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Martitzena 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguaztena 24:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguena 25:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

## Ogia

**Domeka 21:** Mizpildi.

## Zozketak

### BKEko pilota sailaren zozketa:

**1. saria, 3.812 zenbakia:** buruz buruko finalerako bi sarrera eta 25.000 pta. (irabazlea German Balanzategi)

**2. saria, 8.513 zenbakia:** Infernukua tabernan 4 lagunendako afaria (irabazlea Angel Mujika)

Hurrengo alean,  
maiatzaren 26tik

ekainaren 1era bitartekoan  
zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.



**Cecilia Dulanto**  
20an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ane Etxaniz**  
19an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



**Jose Antonio Cabo**  
19an 22 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Jesus Mari Cabo**  
23an 26 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Oier Ugalde**  
25ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Olatz.



**Angel Luis Fernandez**  
19an urteak. Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



**Mireia Manso**  
19an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Mikel.



**Mikel Gutierrez**  
21ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia Aitzol.

## zorion agurrak



**Tamara Zafra**  
20an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, ahizpa eta amama.



**Jose Zafra**  
21ean 47 urte.  
Urte askotarako!  
Andria eta alabak.



**Danel Urzelai**  
25ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Gaizka.



**Antxon Ugalde**  
21ean 11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Karnele Uribesalgo**  
19an 4 urte. Zorionak!  
Etxekoak; batez ere, Beñat.



**Nekane Muñoz**  
24an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.




**Olatz Lezeta**  
25ean 23 urte.  
Urte askotarako!  
Pisuko lagunak.




**Miren Urria**  
24an urtebete.  
Urte askotarako!  
Jones, aitaxo eta amatxo.



**Joseba Osa**  
21ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta  
Ainhoa.



**Maialen Belastegi**  
24an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta  
Markel.



**Lander Barcala**  
20an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta  
osaba-izebak.



**Haizea Iñarra**  
21ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Maddi eta etxeokak.

**hildakoak**

**BERGARA**

**Basilia Lopez de Audikana  
Fernandez de Mendia**

Maiatzak 8, 90 urte

**Anton Irizar Urzelai**

Maiatzak 13, 53 urte

**Daniel Escobar Pobes**

Maiatzak 15, 70 urte

**Gregoria Garmendia Eguren**

Maiatzak 16, 87 urte



**Nagore Igarza**  
25ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aimar.



**Begoña Aranzabal**  
19an urtebetezeta.  
Urte askotarako!  
Markel, Aimar, Na-  
gore eta Maialen.

*Eskelak, urteurrenekoak  
eta eskertzak  
eguzten eguerdira arte  
hartzten ditugu.*

**jaiotakoak**

Aste honetan ez dugu jaiotakoen berri-  
rik jaso, ez Antzuolan, ez Bergaran.

**URTEURRENA**

**Patxi  
Perez Uriguena**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, maiatzak 21,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Jose Joaquin  
Gabilondo Mekolalde**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, maiatzak 21,  
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**Bergarako**



**jaietan  
eskaintza berezia**

**SALOU:**

H. California Garden\*\*\*: 4.100 pta  
Umeendako (2-11 urte) deskontuak: %50  
Oharra: Prezioak pertsonako logela bikoitzean.

**LLORET DEL MAR:**

H. Gran Garbi\*\*\*: 3.690 pta  
Umeendako (2-11 urte) deskontuak: Lehena dohainik, bigarrena %50  
Oharra: Prezioak pertsonako logela bikoitzean.

**PALMA DE MALLORCA:**

H. Sol Pinos\*\* edo antzerakoa : 37.400 pta/ pertsonako.  
Ekainaren 9tik 13ra.

**TENERIFE:**

H. Las Dalias\*\*\*\*: 67.600 pta/ pertsonako.  
Ekainaren 11tik 18ra.

**FUTUROSCOPE:**

H. Relais de Poitiers\*\*\*: 24.900 pta.  
Sarrera eta gosaria barne.  
Ekainaren 9tik 11ra.

**GALIZIA:**

H.\*\*/\*\*\*\* : 19.900 pta. Pentsio osoa + ura/ardoa.  
Ekainaren 11tik 17ra.



943 76 58 88. Irala z/g

## ANTZERKIA

► **Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko V. Mostra** astebukaeran Bergaran (ikus 27. orrialdea).

► **Yllana** taldearen "Hipo" antzezlan gaur, eguakitz, 22:30ean Elorrioko Arriola aretoan. Bihar, zapatua, "Parabola del ojo izquierdo y otros cuentos parabolicocitricos", Gonzalo Valderrama kolonbiarrarekin, 22:30ean Ateneoan.

## MUSIKA

► **Stiff Little Fingers** taldea gaur, eguakitz, 22:00etan Jam-en.

► **Zeke eta Murder City Devils** bihar, zapatua, 01:00ean, Go-Jamen.

## ERAKUSKETAK

► **Txomin Pinillaren margoak** Kultur Etxean eta Nahikari tabernan.

► **Zaharkinak** erakusketa Antzuolako pilotalekuan. Erakusketa bihar, zapatua, 12:30ean zabalduko da.

► **Daniel Laskurainen** margo erakusketa Bilboko Lumberras galerian (Enao kalea, 3).

► **Fernando Arenazaren** "Irtentberik bai?" izenburuko

## KONTZERTUA

### Saxon

- Bihar, zapatua, hilak 20
- Jam aretoan
- Sarrera, 2.500 pta. aurrez edo 2.800 takilan

Heavy estiloa jorratzen duen Saxon talde mitikoa Jam aretoan bisitari izango dugu bihar, zapatua. Taldea 1979. urtean sortu zen, aurretik "Son of a bitch" izenarekin ezagutzera eman ondoren. Berehala, egundoko arrakasta lortu zuten heavy-zaleen artean, eta beren "Wheels of steel" diskoarekin zerrendetako lehen postuetara iritsi ziren Ingalaterran. Britainia Handiko heavy talderik garrantzitsuenetakoa izan da Saxon azken bi hamarkadetan, eta munduan zehar ere jarraitzaile ugari izan dituzte. "Power & The Glory" (1983) diskoak izugarriko garrantzia izan zuen taldearen ibilbidean, kritika ezin hobekak jasotzen baitzituen. Reading-eko urteroko musika jaialdian ere kontzertu benetan apagarriak eskaini izan dituzte, eta 1986an emandako kontzertuko diskoa ere kaleratu zen.

Hala ere, Saxon taldeko kideek, atzera begiratu beharrean, aurrera egin dute, eta joan zen urte-

an "Metalhead" izenburuko diskoa plaza-ratu zuten. Biff Byford (ahotsa), Nigel Glocker (bateria), Paul Quinn (kitarra), Doug Scarrat (kitarra) eta Nibbs Carter (baxua) taldekideak ilusionatuta agertu dira beraien azken lanak izan duen harrearekin, eta orain jiran ditugu Estatuan zehar. Kritikaren arabera, "Metalhead" diskoa heavy klasikoaren barruan kokatzen da. Hamaika abesti biltzen dira bertan, eta dagoeneko "All guns blazing", "What goes around, comes around" eta diskoari izenburua ematen dion "Metalhead" diskoa talde ingelesaren klasikoak bihurtu dira.

Gaurko teloneroak The Bon Scott Band kataluniarrak izango dira.



Argazkian, Saxon taldeko kideak.

margo erakusketa Donostiako Digitex arte galerian (Usandizaga kalea, 5).

## LEHIAKETAK

► **III. Abdon Juaristi** Pintura Lehiaketa. Kartelen

gaia "Zezenak Bergaran" izango da, eta lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira, maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Argibide gehiago, Kultur Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

► **Pegatina lehiaketa** deitutu Jardunek aurtengo Pazkuetarako. Taberna eta jatetxeetan utzi beharko dira esaldiak maiatzaren 22ra arte. Irabazleak 10.000 pezetako saria jasoko du. Argibideak Jardun elkartearen, 943 76 08 19 zenbakian.

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
 Kruz Gallastegi BERGARA

**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**  
 Pintxo eta ogibitartekoen  
 espezialitatea  
 Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**ANTIA**  
 HARATEGIA URDAITEGIA  
 Txahal, idi, txerri, bildots,  
 untxi eta baserriko oilaskoak.  
 Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

## DEIAK

► **Gazte lokalaren aldeko mugimenduak** ostiralero, 19:15ean, Kartzela Zaharrear egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die gazteei.

► **Mendi irteera.** Gorla Alpinok eta Pol-Polek maiatzaren 28an Sorogain-Eugira joateko egun osoko mendi irteera antolatatu dute. Txartelak Pol-Pol tabernan hilaren 25era arte.

► **Laixan** Oñatiko euskara elkarteak antolatuta, domekan, hilak 21, Arrasate-Oñati antxintxika lasterketaren XVIII. edizioa jokatu da 11:00etan. Izen-ematea (1.000 pezeta) Arrasateko Portaloian 10:30ak baino lehen.

► **HHI-EPA.** Datorren ikasturterako aurrematrikula epea zabalik maiatzaren 25era arte. Argibideak: 943 76 44 52.

► **Egonaldiak familia euskaldunetan.** Parte hartzeko baldintzak 18-45 urte bitartekoa izan eta, gutxienez, euskalduntzearen 8. urratsari dago-kion euskara-maila egiaztatzea dira. Ikasleak hilabateko edo biko egonaldia egiteko eskubi-dea izango du uztail, abuztu eta irailean. 943 01 26 61.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, maiatzak 24, 18:30ean, Seminarioko lokalean.

► **Abiadura Handiko Trenaren** aurkako manifesta-

zioa bihar, zapatua, Irunen eta Hendaian. "AHT eta proiektu txikitzaileak gelditu! Gizarte aldaketa bultza dezagun!" lemapean, 17:00etan manifestazioa abiatuko da Irungo Urdanibia plazatik. Hendaian manifestazioa 17:30ean aterako da tren geltokitik.

## KINTADAK

► **1950eko** kintoen (1929an jaiotakoak) afaria bihar, zapatua, Antxonin, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Santa Marinaran meza. Izen-ematea Antxonin edo 943 76 26 53 eta 943 76 19 22 telefonoetan egin daiteke.

► **1963an** jaiotako bazkaria maiatzaren 27an Azpeitxi jatetxean, 15:00etan. Izen-ematea (1.000 pezetako aurrerapena) Ariznoa tabernan hilaren 22ra arte.

► **1960an** jaiotako afaria maiatzaren 27an Tartufo jatetxean. Aurretik, 21:15ean, taldeko argakia aterako da. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Tartufo jatetxean Kutxako 0123018798 kontu korrante zenbakian.

► **1942an** jaiotako afaria maiatzaren 27an, 21:00etan Azpeitxi jatetxean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Mizpildi okindegian, Edel oihardindan eta Azpeitxi jatetxean bertan.

## Z I N E A .

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**  
**Como ser John Malkovich**

Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**  
**Un domingo cualquiera**

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

**Pokemon**

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

**Historia de lo nuestro**

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen

eguna: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia**

**¡Hola primo!**

Eguena: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**28 dias**

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen

eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**Las virgenes suicidas**

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen

eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Toy story 2**

Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena: 20:00.

**AZKOITIA. Baztartxo**

**Yoyes**

Eguakitza: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena, ikuslearen eguna: 20:00.



**COMO SER**  
**JOHN MALKOVICH**

**Zuzendaria:** Spike Jonze.

**Aktoreak:** John Cusack, Cameron Diaz, Catherine Keener. **≥13 urte**

Spike Jonze zuzendariaren lan honek Urrezko Globoetan lau izendapen jaso zituen, tartean filme onenari eta aktorea onenei (Cameron Diaz eta Catherine Keener) zegozkienak. Craig Schwartz (John Cusack) bizitza desastre hutsa da, eta Manhattaneko konpainia txiki batean lanean hastean, Maxine-rekin (Keener) maiteminduko da. Lantokian John Malkovich izateko esperientzia suertatuko zaio...

**HISTORIA DE LO NUESTRO**

**Zuzendaria.** Rob Reiner.

**Aktoreak:** Bruce Willis, Michelle Pfeiffer. **≥13 urte**  
Rob Reiner zuzendariak (*Algunos hombre buenos*) mundu osoko takiletan momentuko aktorerik arrakatsuenak direnak bildu ditu bere azken filmean, hamabost urte ezkondua darman bikote baten paperean. Biek ere euren harremanetan eten bat egitea erabakiko dute, krisialditxo bat gainditzeko asmoz.

BERRIGARA ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

- 📖 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 📖 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 📖 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txarelarekin

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!*

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

## Jardunek hamar urte egin ditu aste honetan euskara bultzatzen

Gaur duen erronka, bazkideekin hartueman zuzenagoa izatea da

**Hamar urte bete zituen joan zen eguaztenean Jardun euskara elkarteak. Hamar urte, euskararen erabilera bultzatzen herrian. Urteak joan ahala eta denborekin bat egiteko erronka berrie utsiko die euskara elkarteak.**

1990. urteko maiatzaren 17an egin zuen aurkezpena herrian Jardunek. UNEDeko aretoa gainezka zegoen; izan ere, aurkezpen aurreko egunetan sortutako jakinmina handia izan zen, eta horrek eraginda, 250 lagun inguru bildu ziren euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, sortu berri zen elkartearen nondik norakoak ezaugaritu nahian.

Aurkezpenean azaldutakoaren arabera, honakoak ziren orduko datuak euskararen ezagutzari dagokionez: bergararren %66k euskaraz ondo egiten zuten; %17k zerbait zekien, eta gainerako %17ak tutik ere ez zekien. Datu horiek kontuan izanda, badirudi Bergaran euskaraz bizitzeko aukera bazegoela. Eguneroko errealitateak, baina, beste gauza bat erakusten zuten: euskararen erabilpena %40koa zela, eta gehien, haur eta adineko pertsonak erabiltzen zutelak. Gazte eta helduek ia ez zuten erabiltzen.

Errealitatea hori izanik, bergararroi euskaraz bizitzeko giroa eta baldintzak sortzeko eratu zen Jardun, horretarako beharrezkoak



Jarduneko sorrera batzarra UNEDeko aretoan egin zen 1990eko maiatzaren 17an.

ARTXIBOA

diren bitartekoak eta ekin-tzak antolatzeko, alegia.

Ez zen makala izan elkarte sortzeko hainbat herritarrek egindako lana. Maiatzaren 17an herri aurreko aurkezpena egin arren, hilabete batzuk lehenago hasiak ziren biltzen euskararen egoerarekin kezkatuta

zeuden hamarren bat lagun: Estepan Plazaola, Juan Martin Elexpuru, Mirari Alberdi, Jose Angel Mikeo eta Agurtzane Arriola, esaterako.

### LEHENENGO URRATSAK

Elkartearen lehenengo fruituetako bat, BERRIGARA aste-karia izan zen. 1990 urteko

abenduaren 14an kaleratu zen BERRIGARAREN lehenengo alea. Horrezkero, urtetik urtera, sendotzen joan da Jardunen egitura, eta baita zabaltzen ere euskararen erabilera sustatzeko sarea: 1991 urtean, astekariak gain, Kultura taldea eta Gazte taldea zituen. Lehenengoa, ekintza kulturalak antolatzeko arduratzeko sortu zen. Bigarrenaren eginbeharra, hitzak diogen bezala, gaztekin harreman zuzena izatea zen; horretarako, hainbat lehiaketa (jaietan pegatina, brusa eta txorimalo lehiaketa, edo Bergara Ezagutzen izenekoa, besteak beste) edota ikastaro, udaleku eta euskara maila apala duten gazteendako errefortzu taldeak antolatu dituzte. Gaur egun, bi taldeok lanean jarraitzen dute, eta, gainera, talde eta jardura gehiago



Elkarteak diruz laguntzeko hitzarmenak sinatu izan dira Udalarekin.



ditu elkarteak gaur. Bestalde, Jardunen garapenean, Udala ere garrantzitsua izan da; izan ere, hainbat hitzarmen sinatu ditu elkartearekin, diruz laguntzeko.

**HITZARMENAK**

1993. urtean sinatu zuen Jardunek lehenengo hitzarmena Udalarekin. Hitzkuntza normalkuntzaren ikuspegitik herri ekimenak duen garrantzia kontuan hartuz, elkarteak diruz laguntzean oinarritzen da hitzarmena. 1995 arte, urtez urte sinatu ziren. Hortik aurrera, lau urtekoak izan dira. Azkenak, 2000-2003 urteei dagokiena izan da. Martxoaren 29an sinatu zen.

**ESKAINZA ZABALTZEN**

Gaur egun, Jardunek, honako taldeak ditu: BERRIGARA astekaria, Kultura taldea (ikastaroak, hitzaldiak, udako jarduerak, Kultur Errota,

amodiozko gutunak, bertso-laritzak eta trikiti eskola lan-tzen ditu), Gazte Taldea (lehiaketak, Bergarako jaietako jarduerak eta Antxintxika programa), Kartzela Zaharra (astegun eta asteburuetako eskaintza eta begirale eta formazio ikastaroak), Emakume taldea (eskulak ikastaroak eta hitzaldiak) eta Formazio eta Sensibilizazio taldea.

Azken talde honek, Jardunek aurrera begira duen erronka nagusietakoa jorratuko du: gaur, 600 bazkide inguru ditu, eta hauen azterketa sakona egin ostean, elkartearekiko lotura jakin nahi du. Era berean, bazkideak ezagutu eta hauengandik aportazio handiagoa lortzea du helburu. Izan ere, euskararen normalizazioa lortuko bada, bakoitzak bere esparruan landu eta bultzatu behar duela ikusten du Jardunek.



Kartzela Zaharra neska-mutiko askoren bilgune bihurtu da..

ARTXIBOA

**“Bazkideak Jarduneko parte senti daitezen nahi dugu”**

**G.** Zein da hemendik aurrera Jardunek duen erronka?

**E.** Orain hilabete gutxi, bazkideek inkesta bat bete dute. Honekin bazkideen perfila ikusi nahi izan dugu. Hemendik ateratako emaitzekin, hau da, bazkideen zaletasun eta interesekin, eurek aporta dezaketenearekin azken batean, lan taldeak sortu nahi ditugu. Jardunek antolatzen dituen ekitaldiak soilik bere eskutan geratu beharrean, bazkideak partehartzaile zuzenak direla sentitzea nahi dugu.

Hau horrela izanda, beste dinamika baten murgilduko da Jardun, orain artekotik ezberdina.

Adibidetzat gazte taldeak hartuko ditugu. Hauek beti izan dute begirale bat koordinatzaile lanak egiten. Bazkideak partehartzaile zuzen-



**Idoia Olano**  
Jarduneko idazkaria

nagoak izanda, koordinatzaileak jarraituko du, beharrezkoa delako, baina taldearen antolaketa irekiagoa izango da, baita egiten dituen ekintzetan ere.

Azken batean, bazkideak ez daitezela izan soilik urtean kuota bat ordaintzen duten pertsona anonimoak, elkartearen parte senti daitezen nahi du Jardunek, parte aktiboa ahal duten neurrian.

**G.** Zer dela eta aldaketa hau?

**E.** Aspalditik dator bazkideekin lan egiteko nahia. Indar handia emango lioke elkarteari. Bestalde, badira orain dela hamar urtetik bazkide direnak, edo orain bost urte egindako bazkide kanpainakoak. Haien inguruan, orduko datuak baino ez ditugu, eta datuok eguneratzea ere komeni da.

**KONDE**  
  
 Burdinate 1  
 ☎ 943 76 02 57  
**PANADEROKUA**

Amillaga, gasolindegian ondoan. Tf.: 943 76 57 34  
**ZABALETA**  
**ERROTULOAK**  
 Mota guztietako errotuloak  
 Fatxadak, eskaparateak...

  
**DEBA GARAIA**  
 INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
 Bergara / Arrasate / Elgoibar  
 Telefono Aranzadi 2 behea  
 943 76 21 80 / 943 76 06 37

# Tavex-eko zuzendaritzak atzera bota du sustapen plana

**Tavex taldeko zuzendaritzak, atzera bota du Bergarako enpresarako aurreikusita zeukan sustapen plana. Arrazoia, sindikatuekin adostasun batera ez heltzea izan da.**

Enpresa eta sindikatuak maiatzaren 8an bildu ostean erabaki du Tavex taldeko zuzendaritzak sustapen plana atzera botatzea; izan ere, bileran ez ziren adostasunera heldu.

Daniel Perezek, Tavex taldeko Giza Baliabideetako Zuzendariak esandakoaren arabera, sindikatuek ere ikusten dute San Antonion dagoen ehun eta hari planta defizitarioa dela - 400 milioi pezetako galera du urteko-, eta puntu honetan bat datoz enpresako zuzendaritza eta sindikatuak. Hala eta guztiz ere, sindikatuek ez dute plana onartu, eta eztabaidatu ere ez dute egingo plana, San Antonioko plantaren arazoa marko zabalago baten barruan aztertzen ez bada, hau da, inguruan dauden enpresen arazoekin batera aztertzen ez bada.

Ildo honi jarraituz, sindikatuek San Antonioko lantegia ez ixtea eskatu zuten zuzendaritzarekin egindako bileran, horrela, Elorregiko



Garranek eta Perezek martxoan aurkeztu zuten plana.

ARTXIBOA

plantaren bideragarritasuna bermatzeko.

Bestalde, arazoaren irtenbide gisa, Narbaiza lantegiko plan testilean sartzeko aukera azaldu zuten sindikatuek.

Honen aurrean, enpresak baztertu egiten du San Antonioko planta martxan edukitzea, ehun eta hari produkzioa defizitarioak direlako. Bestalde, Daniel Perezek arabera, "zuzendaritzak baztertu egiten du guztiz arlo berean diharduten beste enpresa batzuekin inongo loturarik izatea, Tavex-eko langileen interesak arriskuan jartzen baititu".

Desadostasun hauek direla medio erabaki du Tavex-eko zuzendaritzak plana atzera botatzea.

## SUSTAPEN PLANA

Plana bi jardueratan oinarritzen da: batetik, San Antonioko hari eta ehun produkzioa geratzea, urtean 400 milioi pezeta galtzen duela; eta bestetik, San Antonioko lurrak saldu ostean, lortutako dirua Elorregiko plantan inbertitzea.

San Antonioko planta itxiz gero, 70 langile geratuko dira soberan. Hauei borondatezko bajak eta aurreibilazioa eskainiko zaie enpresako sustapen planaren arabera.

Gauzak horrela, datoren astean Tavexeko sindikatuek esandakoaren arabera, prentsaurrea eskainiko dute euren jarrera azaldu eta erabakien berri emateko.

## Presoen aldeko mobilizazioak

**Debagoieneko** Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak eta Gazte Ekimenak, bailarako manifestazioa antolatu dute Bergaran datoren domekan, hilak 21. Helburua, ondorengo lau puntu hauek errealtate bihurtzea da: Euskal preso guztiak euskalerriratzea, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kaleratzea, kondanaren 3/4ak beteta dituzten presoak kaleratzea eta espetxeetan bizi baldintzak errespetatuak izan daitezela. Manifestazioa arratsaldeko 19:00etan aterako da San Martin plazatik.

Bestalde, euskal preso politikoen proposamenari jarraiki, hainbat ekitaldi izango da herrian gaur, eguakitza, hasi eta hilaren 27ra bitartean: gaur, egun osoko baraualdia egingo da, eta 19:30ean giza katea; martitzenean, greba egingo da irakaskuntzan eta eguerdian manifestazioa egingo da; eguaztenean, greba instituzionala egingo da; eguenean industria eta komertzioetan, eta manifestazioa ere egingo da 13:00ean, eta, eguakitzean, manifestazioa 20:00etan plazan.

**AGOITZ**

**Tapizdenda**

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47

**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA

# Industrialdeko laugarren faseko lanak martxan dira

**Hasi dira** Bergarako Industrialdeko 4. faseko lanak. "Construcciones Moyua" k egingo ditu, eta bost hilabetez luzatuko dira. Lanak bost fasetan egingo dira; dagoeneko lehenengo hirurak bukatuta daude, eta joan zen astean ekin zioten laugarrenari.

Fase honi dagokionez, urbanizatze lanetan oinarrituko da: bi pabilioi eraikitzeko lurra berdinduko da, mendialdea eusteko horma bat jasoko da, bidegorria eraikiko da, izan ere, trenbide zaharraren bide zati bat industrialde barruan kokatuta dago, eta zati hau eraikiz, San Prudentziara doan bidegorriarekin lotuko da.



Orube honetan beste pabilioi bat eraikiko da.

Azkenik, gasa, telefonoa eta argindarra bezalako zerbitzuetarako hodi eta kableak sartuko dira lur azpian.

Industrialdeko lanak noiz amaituko diren ezin da zehaztu oraindik. Azken fasea geratzen da. Fase honetan, bi pabilioi eraikiko dira.

## Debagoieneko Turismo azoka Arrasaten

**Halcon** Bidaiak enpresak, Debagoieneko Mankomunitatearen laguntzaz, "Debagoieneko I. Turismo Azoka" antolatu du maiatzaren 20 eta 21ean, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Bertan, bidaiaria agentzia maioristek eskaintzen dituzten pakete turistikoak, destinuak eta Debagoiena eskualdeko eskaintza turistikoak aurkeztuko dira. Guztira, 24 stand izango dira kontsultagai Arrasateko pilotalekuan. Feria bihar, zapatua, 12:00etan zabalduko da. Zapatuan eta domekan bisita gidatuak ere antolatuko dira.








Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

**BERGARA**





Banatazile ofiziala

# Berrigara

410 zenbakia.  
2000ko maiatzaren 19a.

**Irizar jauregia. 20570 Bergara**  
Telefona: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabalaeta.  
**Harpidetzatza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketa:** Alex Labaien,  
Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usaia Mendizute, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:**  
Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo,  
Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru,  
Josu Okina.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko irudia: La Picara Lucuela

Tirada: 5.300 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian argitaratutako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berigarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia z/g 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### BERGARA HIRUGARREN MAILAN

Bergara Kirol Elkarteko bazkideetako bat naiz, eta zorionak eman nahi dizkiet taldeko jokalariei, entrenatzaileari eta zuzendaritzari Hirugarren mailari eustegatik. Badakit oraindik ere kategoria galtzeko arriskua hor dagoela, baina karanbola ugari eman beharko lirajteke mailaz jaisteko. Joan zen domekan, Durangon, gure jokalariek garaipen inportantea lortu zuten, eta, asko sufritu ondoren, datorren denboraldian Hirugarren mailan jarraitzea lortu dute. Ez da gutxi, kontuan izanda, gainera, taldeko jokalariek oso gazteak eta gehienak herrikoak direla. Badakigu beste talde batzuk zer nolako aurrekontuak dituzten eta fitxaketak egiteko kapaz direla. Bergarak, umil-umil, goraipatzeko moduko denboraldia egin du. Egia da ez dugula Agorrosinen partidu ikusgarri asko ikusi aurtengo denboraldian, baina jokalariei

nahikoa lan egin eta duten guztia eman dutela aitortu behar zaie. Beraz, zorionak guztiei Bergara hor mantentzearren. Ea datorren urtean, aurtun lortutako esperimentiarekin, taldeak oraindik emaitza hobekak lortzen dituen.

*J. Etxaniz*

### FORUM CINEMATOGRAPHE TALDEARI

Berrigararak eskaintzen didan espazio honetatik, zorionik beroenak eman nahi dizkiot Forum Cinematographe taldeari, filme klasi-koen zikloa programatzeagatik. Azken asteotan kalitate handiko filmak klasikoak jatorrizko bertsiotan ikusteko aukera izan dugu, eta, normalean, telebistaz bakarrik ikusten ditugun filme horiek pantaila handian ikustea eskertzekoa da. Urtean behin-edo antolatzen ei dute Forum Cinematographekoek horrelako ziklo labur bat, eta badakit zaila izango dela, baina sarriagotan antolatzea proposatu

nahi nieke, Udalaren laguntza beharrezkoa izango bada ere. Bestalde, ordutegia ez zait egokiena iruditu, eguenetako zine-klubera doan jendea ordutegi batera ohituta dagoelako, eta bederatzi eta erdiak zainera joateko baino afaltzeko ordua dela iruditzen zaidalako. Dena den, esker mila Forumeko zine zaletuei eta segi horrela.


*A. Azkarate*

### ZUZENKETA

Joan zen asteko alean, kulturako orrietan, domekan ospatutako txistulari eguneko albistean, 1975ean ateratako argazki bat zetorren. Bertan, akats bategatik, ez genuen jarri Julian Etxanizen izena. Lerro hauetatik barkamenak eskatu nahi dizkiogu Julian Etxaniz zenaren familiari.

BERRIGARA

## tira biraka peru & unai azkarate



atrebentzia ezpada

bai, esan!

## Uda garaixan garela eta, apartekorik egiten dozu zaintzeko orduan?



**Felisa Muñoz**

Apartekorik ez. Eguzkixa hartzeko orduan kremia emon, eta jateko orduan be pixka bat zaindu.



**Maria Jesus Irazola**

Ez dot apartekorik egiten. Jan berdin egiten dot, eta gainontzekua be bai.



**Modesto Garcia**

Ez dot ezer berezirik egiten zaintzeko. Uda partian ariñago jaten dot, entsaladak eta holakuak, baiña besterik ez.



**Jon Alberdi**

Ez dot ezer egiten. Erreji-menak eta holakuak ez, behintzat. Gauza bakarra eguzkixa hartzeko orduan kremia emotia.



**Marcelino Carmona**

Ez naiz gehixago zaintzen. Urtian zihar bezala jarraitzen dot. Gaiñera ez naiz askotan eguzkittan jartzen.



**Miren Gojenola**

Orain ez, haurdun nago eta tripa aurrera doia. Bestela eguzkittan jartzeko bada, kremia emoten dot; eta protekziño altukua, gaiñera.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.


### BALSA JAITSIERA BERRESURATU DELA ETA

**P. Garciak** deitu digu aste honetan BERRIGARARA, Pazkuetako baltsa jaitsiera berreskuratzeagatik, Udaleko Ingurugiro Batzordea zoriontzeko. Azken urteotan ez da baltsa jaitsierarik egin Bergarako jaietan eta P. Garciari primeran iruditzen zaio berriz ere programa barruan baltsa jaitsiera sartzea. Agintariek erreka garbi baten aldeko apostua egin ei dute azkenaldian, eta herritarrek ere horretan zerikusizuzena dutela dio Garciak. Jai-giroan erreka garbi eta bizi bat aldarrikatzea ezinbestekotzat jotzen du, datozen belaunaldiak ingurugiroa zaintzearen garrantziaz ohartu daitezen. Era berean, gazte eta helduak baltsa jaitsieran parte hartzeko animatu nahi ditu Garciak.

## POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



## Landareak ezagutzen

**Herriko zuhaitz eta landareak ezagutzeko bisita gidatua**

· Errekalde parkea  
· Usondo parkea  
Maiatzaren 24an, eguaztena,  
18:00etan  
Irteera Kartzela Zaharretik

**Denei irekia eta doan**

**Sendabelarrei buruzko hitzaldia**


Ekainaren 1ean, eguena,  
15:30ean  
Kartzela Zaharrean

**Denei irekia eta doan**

**Etxeko landareei buruzko hitzaldia**

· Botanika  
· Turbak, lurrak  
· Produktu fitosanitarioak  
· Loreen fisiologia  
· Zaintze lanak  
· Ugalketa  
· Gaixotasun ohizkoenak  
Maiatzaren 25ean, eguena,  
15:30ean  
Kartzela Zaharrean

**Denei irekia eta doan**



**Ur~bide**  
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617





## Aranzadiko ikasleak bikain ekonomian

Aranzadi Ikastolako DBH2ko **Ekonomiako taldeak laugarren saria lortu du Deustoko Unibertsitateko "Esme Junior" enpresak antolatutako Enpresa Ideia Onenaren IX. lehiaketan.** Ikastolako taldeak aurkeztutako ideia, **Gorlako Keixeta** aterpetxean oinarrituta dago. Ideiaren helburua, Bergarako ingurune natural, kultural eta ekonomikoa ezagutzera ematea izan da. Batez ere, aberastasun kulturala eta eskualdean dagoen industria mugimendua gaztetxoenei ezagutzera ematea. Argazkia Foru Aldundiak Donostian duen egoitzan ateratakoa da, sariak banatu ziren egunean, maiatzaren 6an. Bertan, **Denis Armendariz, Erika Iturbe, Arritxu Barruso, Miren Osa, Edurne Hurtado eta Josune Aldai,** ikastolako talde saritua.

## Zorionak Felix eta Francisca!

**Felix Garaik eta Francisca Suinagak,** urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen zapatuan. Orain dela berrogeita hamar urteko **maiazaren 11n ezkondu ziren Santa Marinako parrokian,** eta ospatzeko, anai-arreba, seme-alaba eta bilobekin elkartu, eta Angiozarren meza entzun ostean, Lasa jatetxean bazkari goxoa egin zuten.



## Alarde beroa

Txistu doinuz josi zituen kaleak domekan **Txistulari alardeak. Arrasate, Oñati, Antzuola, Eibar eta Elgoibarko txistulari taldeek** bat egin zuten alardean **Bergarako Udal Txistulari Banda eta Musika Eskolako Txistulari taldearekin.** Guztiek elkarrekin, 11 pieza eskaini zituzten, Bergarako musikariek konposatu edota moldatuak hauetako zortzi. Bestalde, alardea aprobeztatuz, **Karlos Elortza** atabalaritari omenaldia egin zitzaion. Alardearen ostean, Zabala jatetxean guztiek bazkari ederra egin zuten.

# GoiTB sortuko da astelehenean

## Bergaran eta Antzuolan ez da oraindik ikusiko

Datorren astelehenean, maiatzak 22, sortuko da Goiena Telebista. Hasieran, Leintz aldean bakarrik ikusiko da. Beraz, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaioko herritarrek, 35.000 bat lagunek, ikusi ahal izango dute. Ostera, Oñatin, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, oraingoz, ez dute ikusiko, baina helburua, udazkene-rako GoiTB bailara osora zabaltea da. Orduan, 65.000 lagunengana helduko da.

**D**omekan izango da Arrasate Telebistako azken emankizuna. Astelehenetik aurrera, ATB desagertu eta GoiTB jaioko da. Atxabalta Telebistak ere joan zen maiatzaren 5ean laga zion emititzeari. Hango langileak Arrasaten ibili dira egun hauetan ATBko taldearekin elkarlanean.

Goiena Telebistak orain arteko ATBko programazio bera izango du hementik udara bitartean. Urrian, berriz, parrila berria estreinatuko da, eta saio berriak abiatuko dira. Astelehenetik aurrera, hala ere, hainbat saioen edukiak egokitu egingo dira, aurrerantzean telebista ez baita Arrasaten bakarrik ikusiko. Zenbait saioen izena ere aldatu egingo da; esaterako, "Mondrasport" izan beharrean, "Goienasport" izango da. Joxe Arantzabal da Goiena Telebistako erredakziorburua. Berak dioskenez, "aldaketa nagusia da hemendik aurrera informazioaren subjektua alda-



ATBk emisioak eten eta GoiTB abiatuko da astelehenean Leintz adarrean.

tu egingo dela; jada ez da Arrasate izango, bailara baizik. Horregatik, azkenaldian bagabiltza bailarako albistek jorratzen, eta nahiz eta ATB izan, GoiTBri dagokion albistegia egiten hasiak gara Aste Santuko oporren ostetik. Dinamika horrekin lehenbailehen astea komeni zitzaigun eta horregatik hasi gara sartzten bailara osoko berriak". Honen ondorioz, lan taldea osatu egin da herrietako berriemaldeenkin.

### EMISIO ZENTRUA ETA ORDEZKARITZAK

Goiena Telebistako emisio zentru nagusia Arrasaten egongo da, gaur egun-go ATBren egoitzan. Horretaz gain, hi-

ru ordezkari izango dira: Aretxabaletakoa, Oñatikoa eta Bergarakoa. Aretxabaletatik jasoko ditugu Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako eta Aretxabaletako bertako berriak; Oñatiko ordezkarietatik Oñatin sortzen direnak emango dira, eta Bergararik, Elgeta, Antzuola eta Bergarako berriak. Albistegi nagusia eta gainerako programa gehienak Arrasatek emitituko dira, baina lehen aldi honetan, Aretxabaletatik ere sartuko dira zuzenean albistegian. Udazkeneetik aurrera, GoiTB bailara osora zabaltzen denean, Bergarako eta Oñatiko ordezkarietatik zuzenean sartzeko aukera ere izango da, baina oraingoz, Aretxabaletatik bakarrik.



## Herrietako berriemakak

### ARETXABAETA



#### AMAGOIA LASAGABASTER

23 urte. Atxabalta Telebistako aurpegia izan da hasieratik orain arte, eta hemendik aurrera berak emango ditu Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz-Gatzagako berriak GoiTBn. Pelikulak, dokumentalak eta telesaiokak ditu gustuko.

### ESKORIATZA



#### LOREA AGIRIANO

21 urte. Orain dela lau urtetik "Ze Barri?" Eskoriatzako herri aldizkarian lanean. Kirol saiokak, "Bertatik bertara" eta "Caiga Quien Caiga" gustatzen zaizkio. Aurkezleen artean, Maddalena Iriarte, Andoni Aizpuru eta Julio Ibarra.


### LEINTZ-GATZAGA



#### AINTZANE GARDOKI

32 urte, arrasatearra, Leintz-Gatzagan bizi da. Urtetan ETBn lanean ibilitakoa da, eta ATBn ere kolaboratzaile lanetan jardundakoa. Gaur egun, "Guganda" saioa aurkezten du ATBn. TVEko bigarreneko gaueko informatiboa jarraitzen du.

### ARAMAIO



#### ROSA MONDRAGON

33 urte egitear. "Tu Lankide" aldizkarian egiten du lan. Arrasate Press-en eta ATBn ibilia da -ATBko albistegiaren aurkezlea izan zen-. Aretxagazetan ere jardun zuen. ETBko albistegiak egunero ikusten ditu.

### BERGARA



#### MONIKA BELASTEGI

28 urte. Prentsa idatzia landu du batik bat: Egunkarian, Argian eta Aretxagazetan ibilia da. Gaur egun, Berrigaran dabil. ATBn ere asteburuetan aritu da. Telebistan, informatiboak ditu gustuko eta aurkezleen artean Julio Ibarra eta Andoni Aizpuru.

### UNITATE IBILTARI BERRIA

Goiena Telebistak unitate ibiltaria estreinatuko du astelehenean. GoiTBko arduradun tekniko Ion Aldanondok esan digunez, hemendik lasterrera "bailarako edozein tokitako gertakariak edo ekitaldiak zuzenean eman ahal izango ditugu unitate ibiltariari esker: kirol emanaldiak, kultur ekitaldiak, herrietako festak e.a.". Dudarik ez da, jauzi kualitatibo ikaragarria ekarriko du honek. Herrietako ordezkarietatik ez ezik, bailarako edozein bazterretatik ere zuzenean emititu ahal izango baita.

Unitate ibiltaria datorren astean estreinatuko da. Martitzenetik eguakitzera bitartean, albistegi bereziak egingo dira herriz herri, eta unitate ibiltaria Aramaion, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan izango da informatibo saio bereziok grabatzeko.

### ZELA IKUSI GOITB?

Ion Aldanondo jo eta ke lanean aritu da aste honetan herrien arteko loturak egiten. Oro har, esan daiteke, GoiTB ikusteko ez dela etxeetako telebista aparailuetan ia aldaketarik egin behar, Aramaion izan ezik. Orain arte Arrasaten, Aretxabaletan eta Leintz-Gatzaga ia osoan ATB ikusten zen, eta, beraz, astelehenean aurrera normal ikusiko da

herri horietan GoiTB ere. Ez da kanal aldaketarik egin behar: lehen ATB ikusten zen kanal berean ikusiko da GoiTB. Eskoriatzan, ostera, ez da ATB ikusten, baina astelehenean aurrera GoiTB ikusiko da. Han kable bidez lotuta daude etxeak, eta, hortaz, kablez eta satelitez heltzen dira etxeetara telebista kateak. Aurrerantzean, beste kateekin batera GoiTB ere iritsiko zaie eskoriatzarrei. Telebista seinalea uhinen bitartez helduko da Arrasatek Eskoria-

tzaraino, eta behin Eskoriatzan, etxeetara kable bidez. Eskoriatzan, Telesko eta GoiTB, biak ikusiko dituzte, gainerako beste kateekin batera.

Aramaion, azkenik, reemisore bat jarriko du Udalak GoiTBko seinalea Arrasatek bertaraino eramanez ahal izateko. Aramaion orain arte ATB ikusi ez denez, GoiTB ikusteko telebista aparailuetan Goiena Telebista sintonizatu egin behar dute: UHFko 47. kanalean sintonizatu ahal izango dute GoiTB.

## Albistegi nagusiko aurpegia



### MAIDER OSA

22 urte. 1998ko irailetik aurkezten du ATBko albistegiak, eta, aurrerantzean ere, bera izango da GoiTBko eguneroko albistegiko aurpegia. Orain dela gutxi arte "Astebete" ere berak aurkeztu du. Euskadi Irratian eta Arrasate Irratian ibilia da. "Bertatik bertara" moduko saio bat egingo luke gustura.



## Albistegi bereziak herriz herri

GoiTB Leintz adarrean astlehenean sortuko dela eta, albistegi bereziak egingo dira datorren astean. Unitate ibiltaria herriz herri ibiliko da, eta udaletxe aurrealdeetan grabatuko dira (euririk egiten ez badu) arratsalde partean, gero iluntzeko albistegietan, 20:00etan, 20:30ean eta 21:00etan emititzeko. Herrietako inguruak erakusteko erreportaje bereziak egingo dira, eta, besteak beste, herrietako alkate eta euskara elkarteetako ordezkariak elkarrizketatuko dituzte. Martitzenetik eguakitzera bitartean grabatuko dira albistegiak: martitzenean Aramaion, eguaztenean Aretxabaletan, eguenean Eskoriatzan eta eguakitzean Leintz-Gatzagan.

### UDAZKENERAKO BAILARA OSORA

Bailara osoko telebista izango denaren zati bat bakarrik hasiko da astlehenean. "Erraztasun handiagoak izan ditugu Leintz aldera bakarrik zabaltzeko. Teknikoki samurragoa da, eta inbertsio eta azpiegitura txikiak eskatzen ditu" esan digu Goienako bateragile Mikel Irizarrek. Beste bi adarrak, Bergarakoa eta

Oñatikoa, abiatzeko inbertsio handiagoak egin beharko dira, eta, horretarako, erakunde publikoekin hitzarmenak lotu beharko dira. "Jaurilaritzarekin eta Diputazioarekin izandako harremanak nahikoa aurreratuta daude, eta dirulaguntzak zehaztu ondoren, udalei proposamen zehatzak egiteko moduan egongo gara" esan digu Irizarrek.<

## Guztion ahaleginarekin sortutako telebista

**G**oiTB gure eskualdean bere seinalea zabaltzen hasi behar da datorren astean, eta pozteko moduan gaude debagoiendarrok, alde batetik komunikabide berri bat gure eguneroko eta hurbilen ditugun arazoez arduratuko delako; bestaldetik, komunikabide hau euskaraz izango delako.

Ez da hutsetik sortu, bide luzearen eta esperientzia metatuaren ondorioa da GoiTB, eta berarekin batera garatzen dihardugun Goiena komunikazio proiektua. Herri bakoitzean sustarrak bota dituen euskara elkarte eta herri komunikabideen mugimendua beste urrats bat ematera doa telebista sortzean eta komunikabide hori herritarren zerbizuan jartzean. Gure euskaldun izateari eutsi nahi diogu, eta, bestalde, azken teknologiaz baliatu nahi dugu bide horretan.

Bergaran Jardun elkartea sortu zela hamar urte betetzen dira maiatz honetan, eta hamar urte beteko ditu urte bukaeran Berrigara astekariak ere. Herriaren euskalduntzean etengabeko lana bere emaitzak ematen hasi da, baina prozesu horri egokitzeak etengabe berritzeko erronka dakar, eta, beldur barik, gu geu prozesu horren eragileak izateko erabakia hartu beharra.

Hasieratik Bergara aldean ikusiko ez dugun arren laster batean etxean izango dugu telebista berria, azken oztopo "teknikoak" gainditu ondoren. Zorionak GoiTB!

**Jose Angel Mikeo**  
Jarduneko lehendakaria


# Oparia

EROSKETA  
DOHAIN



ARETXABAETA

ARRASATE



Zenb. 00000 Zenbaki honekin parte hartuko duzu Aretxabaletako Arkauz Altzariaken (Araba Ibilbidea, 20) 2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean, arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari (500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:        pta.  
(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

# Astebeteko Oporrak 29.000

Pta  
Pertsonako

174,29 EUROS €\*\*



1. Euskal Herriko Agentzia

**VIAJES EROSKI**  
BIDAIAK

Ondo pasau Pazkuetan!

► Precio Onak baino gehiago

Baieko del siglo XXI  
nri mendeko akordioa  
bai  
caskarari


TRAVEL

## Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa Bergaran zapatuan

**Bihar, zapatua, gimnasia erritmikoko Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatu da Labegaraietako Kiroldegian. Goiz eta arratsalde, 150 gimnasta inguru izango dira lehian.**

Irati Arteagak, Virginia Odriozolak, Sarai Gallegok, Amaia Markiegik eta Sarai Ruizek osatuko dute Ariznoa taldea, Aranzadi Ikastola ordezkatzuz. Guztira, 27 taldek hartuko dute parte biharko txapelketan, eta banakako mailan 16 gimnasta arituko dira lehian. Arteaga, Odriozola eta Gallegorekin batera, Maialen Legorburu antzuolarra ere bananako txapelketan egongo da.

Bergarar gimnastek maila ona erakutsi dute orain arte hainbat herritan jokatu-tako probetan, eta Helena Herreros entrenatzailea itxaropentsu azaltzen da biharko txapelketari begira. Helena Herreros adierazi digunez, "ikusitako behar bihar zer gertatzen den, baina denboraldian zehar ondo ibili dira gure gimnastak, sailkatze probetan emaitza



Argazkian, eskolarteko Gipuzkoako txapelketan arituko diren bergarar gimnastak.

onak lortu baititugu. Dena den, Gipuzkoako txapelketan beste zona batzuetako gimnastekin konpetitzea tokatu zaitzaie, eta zaila da besteen benetako maila neurtzea txapelketa heldu arte. Ea gure neskek nerbioak gaintitu eta euren benetako maila emateko gai diren".

Biharko Gipuzkoako eskolarteko txapelketan alebin, infantil eta kadete mai-

lako gimnastak bilduko dira. Bergararrek alebin mailan jardungo dute. Esan bezala, probak goiz eta arratsalde jokatu dira, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Ariznoa taldeko ardura-dunek dei egiten diete zale-tu guztiei, bihar, Labegaraie-tan izango den ikuskizunera hurbiltzeko, maila bikaineko gimnastak ikusteko aukera egongo da eta.

### EUSKADIKO TXAPELKETA DOMEKAN

Bestalde, domeka arratsaldean Euskadiko banakako txapelketa jokatu da Altzako kiroldegian, arratsalde, eta bertan, Eibarko Ipurua taldean ari diren Ane Miren Fernandezek eta Aintzane Narbaezek hartuko dute parte. Jubenil eta junior mailan Gipuzkoako txapelkunak ditugu bergararrak.



### Piloto sarituak

**Herriko piloetok** iazko denboraldiko sariak jaso zituzten duela bi aste Gasteizen egindako sari banaketa ekitaldian. Aitor Zabaletak mendiko igoeren txapelkunari zegokion saria eskuratu zuen. Bestalde, Julio Abad kopiloto zuelarik, Javier Bretaña seigarrena izan genuen sailkapen berean, eta German Hernandez zazpigarren geratu zen Aritz Ormazabal kopilotoarekin batera. Junior mailan, Hernandez izan zen irabazlea. Rallyetan, berriz, Hernandezek eta Ormazabalek laugarren postua lortu zuten (juniorretan irabazle izan ziren), eta Bretaña bederatzigarren tokian geratu zen. Argazkian, ezkerretik eskumara, Ormazabal, Zabaleta, Hernandez eta Bretaña eskuratutako plakekin.

## Enrique Nieto Aretxabaletara eta Gorka Zelaia Aloña Mendira

**Enrique Nietok** Aretxabaleta futbol taldea entrenatuko du datorren denboraldian. Aurreko denboraldian 3. mailara igotzea lortu zuen Bergarak Nietoren eskutik, eta aurten entrenatzeke egon da. Datorren uztailetik, Preferente mailan ari den Aretxabaleta taldea gidatuko du. Bere hitzetan, "helburu nagusia kategoriari eustea izango da. Kanpoan entrenatzeak asko erakartzen nau. Talde langilea osatu nahi dut, jokalariek guztiek bere onena ematen duten horietakoa, Alavesen edo Valentzian gertatzen den moduan". Xabier Zangitu osintxuarra Nietorekin arituko da: "oso jokalaririk balioga-



Zelaia eta Nieto, joan zen zapatuan Agorrososin.

rrria dela uste dut, gaitasuna eta koalidadeak dituelako, eta duen beteteriagatik, talderako jokalaririk aproposa izan daitekeelako".

Bestalde, laguna duen Gorka Zelaia Aloña-Mendi taldeko aulkian izango da. Zelaiak Bergarako jubenil taldea entrenatu du azken bi denboraldietan, eta nazio mailako entrena-tzaile titulua eskuratze-ar dago. Jubenil taldea kategoriako liderra dugu, eta Ohorezko ligara igotzeko aukera dauka aurten. Aurten bi partidurik ez ditu galdu. Orain, Aloña-Mendi entrenatzeko aukera suertatu zaio Zelaia-ri: "gauzak ondo egiten ahaleginduko naiz, etxeko jokalariekin lan eginez. Bergaran emandako urteak zoragarriak izan dira". Eñaut Unamuno prestatzaile fisiko bergararrak ere Aloñarekin fitxatuko du.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Ordizia

Bigarren mailako jubenilak  
Zapatua, 16:30. Ipintza

#### Bergara-Usurbil

Neskak  
Zapatua, 18:15. Ipintza

### ARETO FUTBOLA

#### Bergara-Antxeta

Senior mutilak  
Gaur, eguakitza, 22:30ean  
Kiroldegia

### GIMNASIA

GIPUZKOAKO GIMNASIA  
ERRITMIKOKO ESKOLARTEKO  
TXAPELKETA  
Bihar, zapatua,  
goiz eta arratsalde, Kiroldegian.

### PILOTA

BERGARA HIRIA TXAPELKETA.  
Martitzenean eta eguaztenean,  
hilak 23 eta 24, finalerdiak,  
19:30ean, Udal Pilotalekuan.

## Ipintzako futbol txapelketa


**Bihar, zapatua,** Ipintzako mugarik gabeko futbol txapelketan izena eman duten talde-etako ordezkarien bilera izango da, 16:00etan Ipintzan. Txapelketa astelehenean bertan hasiko da. Neskena, berri, maiatzaren 30ean jarriko da martxan eta, betetera-noena, datorren ekainaren 8an.

## Neskak kopako finalerdian



**Nesken futbol taldeak** Kopa txapelketako finalerdia jokatuko du bihar, 18:15ean Ipintzan, Usurbilen aurka. Bergarak 1-4ko emaitzarekin irabazi zion Dunboa taldeari final laurdenetan. Silvia Valorrek (2 gol), Jone Azkaratek eta Ainara Laskurainek egin zituzten golak. Bihar irabazteko, Antoniano-Oiartzun neurketako irabazlearen aurka jokatuko du Bergarak finala, ekainaren 4an.

Argitapen honen edizioako laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza  
obra social*

# Labegaraietako futbito txapelketa



## ERROTAGAIN BI FINALETAN


Errotagain taldea kopa zein liga txapelketetako finalerara iritsi da, joan zen zapatuan, kopako finalerdian, Mongatxurak taldeari 8-4ko emaitzarekin irabazi baitzion. Partidua oso borrokatua izan zen, baina Errotagainek atsedenean lortutako abantailari (4-1) eutsi ahal izan zion. Domekan, berriz ere bi taldeak aurrez aurre izango dira liga txapelketako finalean. Partidua domekan arratsaldeko zazpiretatik aurrera jokatuko da Kiroldegian. Bestalde, datorren astebukaeran, zapatuan, kopako finala izango da, Errotagain eta Bilburbaiek Opel Lam taldeen artean. Gauzak horrela, Errotagainek "dobletea" lor dezake aurtan. Horrela izango ez balitz, liga eta kopa irabazleen arteko "txapeldunen partidua" jokatuko litzateke, datorren domekan ziurrenik.

## PARTIDUA

### LIGAKO FINALA

Domekan barruan,  
19:00etan:  
Mongatxurak-Errotagain

Informazio hau babesle hauei esker:



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21      Zubillaga z/g  
BERGARA          OÑATI  
943 76 20 49      943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza  
2A behea ezkerra.  
Tf. 943 76 71 19

## talde federatuen emaitzak

### FUTBOLA

**Bergara 2;** Zumaiako 1  
Lehen mailako jubenilak  
**Bergara 4;** Urnieta 1  
Bigarren mailako  
jubenilak  
**Bergara 2;**  
**Ondarroako Aurrera 2**  
Ohorezko kadeteak

**Durango 1;** Bergara 2  
Hirugarren maila  
**Dunboa 1;** Bergara 4  
Neskak

**ESKUBALOIA**  
**Aierru 20;** Bergara 21  
Senior mutilak  
**Bergara 5;** Elgoibar 28  
Kadete neskek  
**Aloña 26;** Bergara 3  
Kadete neskek  
**Bergara 21;** Aloña 20  
Kadete mutilak

**Bergara 32;**  
**Arrasate 32**  
Jubenil mutilak

**SASKIBALOIA**  
**Bergara 64;**  
**Tolosa 62**  
Kadete mutilak

## mahoneroak



**CARLOS ARNAIZ**  
BKEko presidentea

Denboraldiaren balorazioa oso positiboa da, helburu guztiak bete dira eta. Domekan, Durangon irabazi ondoren, eta, ustekabean, San Pedrok galdu ostean, 16. tokian geratu gara, eta kategoriari eutsiko diogulakoan nago. Joan zen denboraldiko ekipo berarekin lortu dugula kontuan hartuz, duen meritua eman behar zaio horri. Zaletuei ere eskerrak eman nahi dizkiet, denboraldian zehar eskaintako laguntzagatik, arrakastagutziona izan baita. Oso denboraldi gogorra izan da, eta dezente sufritu ondoren, azkenean permanentziaren saria jaso dugu.

Datorren denboraldiari begira, entrenatzaileak eta jokalariek gehienek jarraituko dutela uste dut. Dena den, taldearen egitura kolokan dago, eta datorren ekainaren 16ko batzar orokorrean gauza asko argitu beharko dira, besteak beste, azpiko kategorietan entrenatzaile beharrean gaudelako momentu honetan, eta zuzendaritzan lau katu ari garela lanean.

## Otsein Saria

Partidu guztiak jokatu ondoren, sailkapena horrela geratu da:  
**Jokin Mendiaratz** ..... 13 puntu  
**Gorka Dueñas** ..... 12 puntu  
**Oxel Apraiz** ..... 12 puntu  
**Josetxo Lizarralde** ..... 10 puntu  
**Asier Rodriguez** ..... 9 puntu  
*Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.*

**kronika** kadete nesken eskubaloi taldea

## Denboraldiari agur eskasa

**BERGARA** 5

**ELGOIBAR** 28

Bergara: Ainara Nafarrete, Elaia Iñurrategi (3 gol), Oihana Iñurrategi (gol bat), Nagore Aizpurua, Ane Miren Irizar, Nuria Fernandez (gol bat), Ana Garcia-hasierako taldea-, Idoia Igar-tua eta Izaskun Arrese.



Elgoibarren aurka zapatuan galdu zuen Bergarako taldea, Argiñe Zurutuza entrenatzailearekin.

Denboraldi osoan erakutsitako moduan, Bergarako kadete nesken eskubaloi taldeak irudi eskasa azaldu zuen zapatuan Elgoibarren aurka Labegarairetan jokaturako partiduan. Astebukaeran Kopa txapelketari agur esan zion talde bergararrak, domekan Oñatin galduta. Liga zein Kopa txapelkete-

tan sailkapeneko azkenak izan ditugu Oihana Garmendiak eta Argiñe Zurutzak entrenatutako neskek.

Egia esan, Kopa txapelketan multzo zailena egokitu zaie bergararrei, Arrate, Aloña-Mendi, Uro-

la eta Elgoibarren aurka jokatu behar izan baitute. Zapatuko partiduan Elgoibarrek maila bikaina erakutsi zuen, eta erraztasun osoz irabazi zien etxekoei. Hasieratik elgoibartarrak nagusi izan ziren kantxan, eta Bergarak zailtasun

ugari izan zituen erasoan zein defentsan. Bergarar jokalariek huts asko egin zituzten paseekin, eta oso jaurtiketa gutxi egin zituzten. Elgoibarreko atezainak ez zuen lan handirik izan zapatuan. Ainara Nafarrete etxekoen atezainak, aldiz, lan dezente izan zuen, eta hankekin geldiketa bikainak egin zituen lehen zatian. Hala ere, elgoibartarrek abantaila erosoan lortu zuten lehendabiziko 25 minutuetan, 2-15eko emaitzarekin nagusituz, gol gehienak kontraerasoan eginez.

Bigarren zatian, partidua berdintsu jarraitu zuen, eta bergararrek ezin izan zuten aldea murriztu. Etxekoek ez zuten asmatzen erasoko jokaldietan, ideia faltagatik, eta Elgoibarrek bere jokoarekin segitu zuen. Uste baino garaipen errazagoa eskuratu zuten bisitariek. Bergararrek nekea ere somatu zuten azkenerako, ordezko bi jokalaririk ez baitzituzten aulkian.

Denboraldia amaituta, datorren denboraldia gertatzeko ordua da.

### ENEKO ITURROSPE / *Beti Busti elkartekoa*

## "Ur bizietan moldatzen naiz ondoen"

**Junior mailako Espainiako Kopa Txapelketan parte hartzen ari da Eneko Iturrospe (16 urte). Katalunia eta Bidasoako probetan laugarren geratu zen eta duela bi aste, Granadan, hirugarren postua eskuratu zuen. Astebukaera honetan Galizian izango da.**

**G.** Zein asmo daukazu Espainiako Kopa Txapelketan?

**E.** Hiru lehenengoan artean sailkatzea gustatuko litzaidake, baina zaila izango da. Gainera, orain azterketekin hasiko naiz, eta denbora gutxiago izango dut entrenatzeko. Galiziakoaren ondoren, azken proba Katalunian jokatu da.

**G.** Zenbat orduz entrenatzen zara astero?

**E.** Egunero ordubetez entrenatzen naiz normalean. Olan ibiltzen gara, eta neguan, ur asko datorrenean, Agorrosineraino jaisten gara piraguarekin.

**G.** Kirol gogorra da?

**E.** Nahiko gogorra da, besoekin esfortzu handia egiten da. Surfiteaz gain, batzuetan hotza ere pasatzen duzu uretan. Hala ere, proba laburrak dira gureak (minutu bat eta 10 segundu inguruko jaitsierak normalean).

**G.** Itsasoan ala errekan gusturago?

**E.** Errekan, ur-bizietan. Itsasoan ez naiz horrenbeste ibili.

**G.** Euskal Herrian piraguan ibiltzeko toki aproposik bai?

**E.** Batzuk bai. Bidasoan dezent ibili izan gara, eta Iparraldean ere leku onak daude.

**G.** Noiztik piraguismoan?

**E.** Orain dela bost bat urtetik, Eskola Kirolean lagunekin. 15 lagun hasi ginen, baina bik besterik ez dugu jarraitzen.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

San Antonio.  
Deitu 943 76 15 06  
telefonora.

Koldo Eleizalde.  
943 76 50 86 (gauzez).

Artekalea.  
Deitu 619 326 228  
telefonora.

Iraburu kalea (Bolu).  
943 76 08 47 (gauzez).

Bidekurutzeta.  
619 133 836.

Apartamentu Zubieta.  
Erabat berritua, 50 m<sup>2</sup>.  
Deitu 670 901 310  
telefonora.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bungalow bat Torrevie-  
jan, udan. Hondartzatik  
gertu. 943 78 14 72.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua edo logela hartu-  
ko nuke alokairuan  
Bergaran edo inguruan.  
Deitu 646 975 367  
telefonora.

Pisua hartuko nuke  
alokairuan.  
943 76 04 70 /11 01.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAK**

Etxea konpartituko nuke.  
627 046 374 (Diego).

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Bolu. Prezio ona.  
943 76 47 99 (gauzez).

Bolu. 2 plaza.  
616 049 865.

Antzuolan, Zurrategin.  
943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi.

Deitu 943 76 47 16  
telefonora.

Masterreka.  
696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun.  
943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA.  
943 76 72 17.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan  
Boni Laskurainen.  
943 76 47 67.

Garajea alokairuan  
Zubiaurren.  
943 76 23 53.

Garajea alokairuan  
Santa Marinaran.  
943 76 41 88.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Zubiaurren garajea har-  
tuko nuke. 943 76 08 26.

**3. LOKALAK**

**EROSI**

Lokal komertziala erosi

nahi nuke S. Lorentzon.  
300 m<sup>2</sup>. 607 82 53 06.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta  
Arruriagan (18m<sup>2</sup>)  
lokalak alokairuan.  
606 96 23 80.

Lokala alokairuan Mar-  
tokon. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Emakumea etxeko

anak egiteko gertu.  
666 643 490 (Herminia).

Auxiliar lana egingo  
nuke. 616 848 362  
(Monika).

Mutila edozertan lan  
egiteko gertu.  
600 600 531.

Neska edozertan lan  
egiteko gertu.  
646 611 383.

Dendako lanetan  
esperientzia duen  
emakumezkoa lanerako  
gertu. 943 76 07 69.

Eskailera eta garajeak  
garbitzen esperientzia  
duen pertsona lanerako  
gertu. 943 76 35 38  
(Antonio).

Mutil gaztea lanerako  
gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile  
edo beste edozertan  
jarduteko gertu.  
646 820 371.

**ESKAERAK**

Emakumea behar da  
etxeko lanak egin eta  
haurrak zaintzeko.  
943 76 35 11.

Emakumea behar da  
umeak zaindu eta  
etxeko lanak egiteko.

# EDEL TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**



## BANKINTER

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

**%2,95\*** etik aurrera

\*Irekiera komisioa: %1  
\*Lehen 6 hilabeteak  
\*35 urte bitartearaino

### Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

### HARDWEARE ETA SOFTWARE

ezagupenak dituen  
gazte euskalduna behar  
da Bergarako  
informatika denda  
batean lan egiteko

943 74 08 50

### LOKAL KOMERTZIALAK

alokairuan  
Ibargarain  
(30-80 m<sup>2</sup>) eta  
San Pedron (40 m<sup>2</sup>)

636 490 220

### ZERBITZARI BAT ETA SUKALDARI BAT

behar dira  
jatetxe baterako

943 76 50 99



Irailetik aurrera.  
943 76 08 08.

Emakumea behar da abuztuan pertsona bati lagundu eta etxeko lanak egiteko (egun osorako). 943 76 22 39 (Miren).

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

Klase partikularrak ematen ditut, maila denetan. 656 752 739 (Ainara).

Ingeles klaseak ematen ditut: OHO-DBH. Ekaina eta uztaila. 943 76 54 12 (Irene).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

**ESKAERAK**

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutzeta, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzte. Deitu 943 78 09 66 telefonora.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matema-

tikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Seat Ibiza (SS-AC). 150.000 pta. 943 72 22 77.

Scooter 50cc, Gilera Runner. Ia berria. 686 704 693 (Asier).

Seat Ibiza 1.2 (SS-AP). 64.000 km. Prezio ona. 943 76 28 01.

Cagiva Roadster motorra. 3.800 km. 220.000 pta. kaskoa eta kandadua opari. 943 76 03 72.

Kymko Chooper 125 errepideko motorra. Prezio onean. 610 972 250 (Anton).

Renault Clio 16V. 93.000 km., egoera onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxy 49 cc. motorra. 4.500 km. Deitu 943 76 34 80 telefonora.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). Deitu 943 76 37 84 telefonora.

Suzuki motorra.

Ia berria. 130.000 PTA. 943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA. Egoera onean. 943 76 54 19 (Raul).

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Katuak. Oso merke. Siamesak. Hilabete. 943 76 24 13 (Maite).

Artzain txakurrak salgai. 656 728 500.

Boxer eta alemaniar artzain arrazako txakurkumeak, pedigridunak. 696 057 346.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Jangelako mahaia eta 6 aulki. 943 76 34 48.

Bañareseko kanpinean modulo bat salgai. Ekipatua. Bista ederrak. 656 748 337.

Kawasaki GPZ 400 FI motor beltza. 31.000 km. 150.000 PTA. 943 70 21 11.

Cagiva Custom 125 motorra. 3.800 km. 120.000 pta.

Deitu 943 76 03 72 telefonora.

Pianoa salgai. Oso merke. 943 76 26 35.

Mendiko bizikleta bi. Merke. 943 76 15 76.

Yashica 108 Multiprogram kamera. 943 76 08 27 (20:00-22:00).

Karro denda, Inesca Viena. Ia berria. 943 76 43 80.

Mendiko botak (43 zkia.) eta futboleko zapatilak (41 zkia.). 943 76 33 59.

Tronpeta berria, prezio onean. 943 78 70 52.


Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

**9. HARREMANAK**

**DEIAK**

Kuba edo Dominikar Errepublikara joan nahi dugun bi lagun gara. Gurekin etorri nahi baduzu, deitu lehenbailehen: 943 76 91 27 (Aitor).



**Langai**


Euskal Lan Zerbitzua

- TXAPISTA**  
Durangaldea. 30317/3
- INFORMATIKA IRAK.**  
Bilbo. 32236/3
- ANTENA JARTZAILEA**  
Bilbo. 30980/3
- ITURKIN LAGUNTZAILEA**  
Portugalete. 32344/4
- TRAILER GIDARIA**  
Ibaizabal. 31294/3
- IDAZKARIA**  
Donostia. 32363/6
- INKESTATZAILEAK, 20**  
Arabar lautada. 31815/1
- IGELTSERO LAGUNTZAILEA**  
Goierri. 32418/7
- KOMERTZIALA**  
Ibai ezker alde. 32019/5
- KOMERTZIALA**  
Bilbo. 32426/5
- INJINERU TEKNIKARIA**  
Gasteiz. 32058/3
- LH-II MEKANIKA, 3**  
Arabar lautada. 32450/1
- ILEAPAINATZAILEA**  
Ibai eskuinaldea. 32109/4
- ALTZARI MUNTATZAILEA**  
Bilbo. 32467/4
- ILEAPAINATZAILEA**  
Bilbo. 32146/2
- KOMERTZIALA**  
Ibai ezker alde. 32468/4
- INFORMATIKA IRAKASLEAK, 2**  
Arabar lautada. 32508/4
- INFORMATIKA IRAKASLEA**  
Gasteiz. 32599/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaiztu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**ZERBITZARI ESPERIENTZIADUNA eta euskalduna behar da terrazarako**

943 76 07 92



Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

*Ametz*

**TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA**  
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.  
Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondorio gabeak.

**NESKA BAT behar da komertzioan lan egiteko. Gida baimena beharrezkoa**

943 76 50 61

**BARRAKO ZERBITZARIA behar da jatetxe batean**

943 76 20 38

**SUKALDARIAK ETA MAHAI ZERBITZARIAK behar dira jatetxe batean**

943 76 35 81

**ZERBITZARIA behar da tabernarako**

943 76 20 40

**TAXI PARADA salgai Antzuolan**

617 332 311

KARLOS ELORTZA. Atabalaria

## “Txistua Euskal Herriko ezaugarrietako bat da. Aitorren denborakoa”

**Musikazale amorratua da Karlos Elortza. Korala, Orfeoia, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda... talde hauetan guztietan hartu du parte abestuz zein hainbat instrumento joz. Joan zen domekan, Txistulari alardean, Udal Txistulari Bandan atabalaria emandako 28 urteak eskertuz, omenaldia egin zitzaion.**

**G.** Noiz hasi zinen musikan?


**E.** Zazpi urterekin hasi nintzen solfeoa ikasten. Aldi berean, koroan ere sartu nintzen, Jose Larrea, “Don Peperekin” tiple kantuan. Gerora, hamazazpi urterekin ahotza aldatu zitzaizkidan, Orfeoian sartu nintzen. Bertan, berrogeita zazpi urte egin ditut, eta orain bizpahiru urte laga nuen.

**G.** Udal Musika Bandan ere aritu zara.

**E.** Bai. Oso gustuko izan dut beti musika, eta nire bizitzako oso zati garrantzitsua izan da. Bandan hamabi urte eman ditut klarinetea jotzen.

**G.** Musika modernoagoan ere aritu zara, ez da?

**E.** Lagun talde batek “Los Hermes” izeneko taldea sortu genuen. Hogeita bost urtez ibili ginen jotzen. Ezkontzetan jotzen genuen eta baita erromerietan ere. Inguruko herri guztietako jailetan jo dugu.



Besteak beste, Orfeoian eta Bandan ere aritu da Karlos.

**G.** Domekan Udal Txistulari Bandan urteetan atabalaria egin duzun lanagatik omendu zintuzten. Noiz eta nola hasi zinen?

**E.** Hogeita zortzi urte egon naiz txistulariekin atabala jotzen, eta hau ere oraintsu utzi dut. Etxean neure kabuz ikasi nuen jotzen solfeoko liburuekin. Horregatik egin didate omenaldia, laga

berri dudalako Txistulari Banda. Oso gustuko dudan arren, laga beharra izan dut, eskuetan artrosia daukat eta.

**G.** Lehenago, domekako omenaldian emozionatu egin zirela esan didazu.

**E.** Bai, oso ederra izan zen, ez nuen horrelako gauzarik espero. Herrikoek zerbait egin behar zidatela banekien, baina ez nekien, Euskal Herriko Txistulari Elkartetik ere ordezkari bat etorriko zenik niri oroigarri bat ekartzera. Horrek ilusio handia egin zidan.

**G.** Domekako alardean eskainitako piezetako bat zeuk konposatutakoa zen. Konposatu ere eginen duzu, orduan...

**E.** Zerbait, baina neure kasa; ez dut armoniarik ikasi. Etxean piano txiki bat daukat, eta haretxekin entretenitzen naiz, eta pieza gutxi batzuk ere konposatu ditut.

**G.** Alardea askorentzat gauza berria izan da herrian, aspaldiko urteetan ez baita horrelakorik egin.

**E.** Badira hogeita hamabosten bat urte alardetik ez dela antolatuta Bergaran. Neuk ere ez dut domekara arte Bergaran txistulari alarde batean jo. Eta gauza ederra da benetan. Txistua Euskal Herriak duen ezaugarrietako bat da; Jaungoikoak bakarrik jakingo du noizkoa den. Antzinakoa da, Aitorren denborakoa izango da.

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

**ileapaindegia**

eder gela

— **disdira** —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**PILI GISASOLA**

*Santiveri*

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheak.  
☎ 943 76 58 83

# Txotxongiloek hartuko dute herria asteburuan

**Helduendako** Txotxongiloen Nazioarteko V. Mostrako lehenengo emanaldiak ikusteko aukera izan dugu da goeneko.

Oraindik ere, gaur, eguakitz eta asteburu osoan zehar, beste hainbat ikus-kizun eskainiko dute nazioarteko hainbat talde interesgarri.

Txotxongiloek izango duten garrantziaz gain, aurtengo mostran, aktoreek eurek ere protagonismo handia izango dute, eta emanaldiak estiloaren arabera San Martin plazan, Novedades aretoan, Zabalotegiko aretoan, Kartzela Zaharrean eta Pol-Pol tabernan eskainiko dira.

Gaur, eguakitz, eta domekara bitartean, antzerkiaren munduko artista eta lan heterogeneoenak ikusteko aukera izango da; honako talde hauek izango ditugu: Flandeseko "Plansjet", Italiako "El Tenderete", Argentinako "Chileno teatro", Brasileko "Anima Sonho", Erromako "Laura Kibel", Pariseko "Le zèbre á pois" eta Indiako "Prasanna Rao". Euskal Herriko taldeei dago-



Chileno Teatro: txotxongiloak eta clown teknikak.

kienez, "Gorakada" eta "Ametsetan" izan genituen eguenean eta, domekan, San Martin plazan, "Markeliñe" k "Alo Europa" eskainiko du.

## Arima Beltza Kultur Errotarekin Pol-Polen

**Aurkeztu berri da** aurtengo Kultur Errota. Egitasmo hau, Topagunearen kultur gintza arloak jarri du abian 1998. urteaz geroztik, eta urtez urteko plangintza herri bakoitzeko euskara elkarteekin batera zehazten du. Bergarako kasuan Jardun elkartearekin, beraz. Maiatzeko kultura eskaintzari dagokionez, Arima Beltza taldea izango da hilaren 28an arratsaldeko 19:00etan, Pol-Pol tabernan.

Kultur Errotaren helburua euskal kultura sustatzea da, eta horretarako, Topaguneko elkarteek kultura ibilbideak eskaini eta elkarten arteko harremanak sakontzea.

Kultura ibilbide horien barruan kokatzen da maiatzaren 28an Bergaran egongo den Arima Beltza taldearen emanaldia. Ibilbide hauek, herritar guztien topagune izan nahi dute, hau da, belaunaldi, siniskera eta bizipen ezberdina duten pertsonen bilgune, eta, era berean, artista amateur eta profesionalen, lan egiteko zirkuito duina eskaintzea.

### Egitaraua

<b>Eguakitz 19</b>	FANFARRA	L'aombra i el doble	Novedades aretoa	20:00
	EL TENDERETE	Las milongas de Babalan	Pol-Pol	22:30
	CHILENO TEATRO	La republica del caballo muerto	Kartzela Zaharra	24:00
<b>Zapatua 20</b>	PLANSJET	Plansjet	Espoloia	13:00
	PLANSJET	Plansjet	Osintxu	18:30
	ANIMA SONHO	Bonocomedia	Novedades aretoa	20:00
	LAURA KIBEL	Teatro di piede	Kartzela Zaharra	22:30
	LE ZÈBRE Á POIDS	European microscopicus circus	Kartzela Zaharra	24:00
<b>Domeka 21</b>	PLANSJET	Plansjet	Herriko plaza	13:00, 18:30
	PRASANNA RAO	Shadowgraphy	Novedades aretoa	20:00
	LAURA KIBEL	Va dove ti porta il piede	Novedades aretoa	20:00
	MARKELIÑE	Alo Europa	Herriko plaza	22:30
	ANIMA SONHO	Bonecronicas	Kartzela Zaharra	24:00



laz bezala, aurtan ere, Mixel Ducau Bergaran izango dugu.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

**Ezker eskuma**

1. Leiho txikiak. 2. Ibai txikia. Areagoa. 3. Garoa, iratzea. Emaizta. 4. Egokierak. Nitrogenoa. 5. Musika nota. Azkenea. Irudi geometrikoa. 6. Tona. Irten. Kasik. 7. Erne! Behara. Iodoa. 8. Sargori. Röntgen. Hegazti-mota. 9. Fruituez mintzatuz, jana izateko sasoiara heldu dena. Auzia. 10. Nago. Zezen zikiratuak.

**Goitik behera**

1. Zintzotasun, esanekotasun. 2. Hobena. Emakume dotorea. 3. Asiako estatua. Astinaldi. 4. Helioa. Gabezia. Bokala. Azkenekoa. 5. Ahuntzaren ar. Kontsoante errepikatua. Bokala. 6. Penagarri. 7. Iodoa. Intsektu-mota. Aurrizki latinoak. 8. Gehiegi. Uranioa. Arazoa. 9. Azaletik. Begirada. 10. Suari dariona. Trebeak.

**Soluzioa**

10. Kea, laioak  
9. Aniki, Soa  
7. Akain, Ad, 8. Lar, U, Auzi  
5. Aker, Li, A, 6. Tamalgarri  
3. Irak, Jipoi, 4. He, Eza, A, Z  
1. Leialtasun, 2. Errua, Dama  
Goitik behera  
9. Umo, Arazoa, 10. Naiz, Idiak  
7. Aditi Lana, 1. 8. Sapa, R, Uso  
5. La, Z, Lauki, 6. T, Jalgil, Ia  
3. Ira, Emaria, 4. Aukerak, N  
1. Lehatilak, 2. Erreka, Ate  
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Noiz jokatu zen azkenengo aldiz eskuz banakako finala Bergarako udal pilotalekuan, 1969, 1970 ala 1971n? Eta nork irabazi zuen, Retegi I.ak ala Atano X.ak?**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

- Noiz sortu zen Bergaran euskararen aldeko Jardun elkartea?  
A- 1991ko maiatzaren 17an  
B- 1990ko maiatzaren 17an  
C- 1991ko apirilaren 14an
- Zein izango da Aretxabaleta futbol taldeko entrenatzaile berria?  
A- Andoni Zubizarreta  
B- Gorka Zelaia  
C- Enrique Nieto
- Zenbat urte eman ditu atabalari Karlos Elortza bergararrak?  
A- 28  
B- 24  
C- 16



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Ane Zangitur**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Aneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Hegino Berri** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Onak arrautzak, klase ertainekoak, dozena**  
**99 PTA!**  
**Super BMen beti eskaintzarik onenak!**

**Alexek Magisteritzako ikasketak egin zittuan, eta ordutik dihardu euskera irakusten. 35 urte dauzka, eta orain dala hamabittik Bergarako Udal Euskaltegixan emoten dittu klasiak.**

**Euskaraz ikastia esaten dan bezain zaila dala pentsatzen jatzu?**

Edozein hizkuntza ikastia bezain zaila da.

**Zein izan da ikasle bati entzun jatzun xelebrekeriarik haundixena?**

Behin ikasle batek ekografian umiaren bihotza ikusi zebala esan biharrian, umian bildotsa ikusi zebala esan zeban.

**Zein da euskaraz ondo ikasteko trukua, trukorik baldin badago?**

Kontua nahi izatia da, konpromisua hartzia eta, duda barik, praktikatzia.

**Zer bihar da irakasle ona izateko?**

Hori irakasle on bati galdetu bihar.

**Irakurtzia gustatzen jatzu?**

Lehen ez, baiña orain asko.

**Ze liburu gomendatuko ziñuke?**

Asko, baiña bi aipatzekotan, "Azukrea belazetan", Inazio Mujikarena, eta Atxagaren "Gizona bere bakardadean".

**Idazle gogoko bat?**

Atxaga asko gustatzen jat, baiña baita beste batzuk be: Irigoien, Ion Arretxe...

**Eta egunkarixa irakurtzeko ohitturarik badaukazu?**

Bai, batez be asteburuan.

**Zer da lehenengo irakurtzen dozuna?**

Atzetik hasten naiz irakurtzen, eta denpora gehixen kirolen sailian pasatzen dot.

**Kirolzalia zara?**

Bai, mendizalia naiz, txirinduzalia be bai.

**Bizikletan ibiltzen jarraitzen dozu?**

Bai, sekula ez dot zihero laga.

## Alex Labaiena

**Giroa zeinek irabaziko dau?**

Ez dot asko jarraitu, baiña, itxuria, Salvodelli da faboritua.

**Zuk, zeñek irabaztia nahiko ziñuke?**

Unai Osak, baiña erretiratu egin da.

**Astebururo mendira juten diren horietakoa zara?**

Ez, sarri juten naiz, baiña astebururo ez.

**Euskal Herriko mendirik polittena?**

Toloño asko gustatzen jat; Anboto be bai.

**Lehiaketa haretan galdetzen zeben moduan...Bergaran, zer dago faltan eta zer soberan?**

Faltan, aparkalekuak; eta soberan etxiak.

**Eta zure bizitzan?**

Faltan... gustura hartuko neuzke milioi batzuk; eta momentu honetan soberan, lana.

**Manixa bat?**

Dana gordetzia gustatzen jat, asko kostatzen jat gauzak botatzia.

**Miresten dozun pertsona bat?**

Badaukat asko miresten doten lagun bat, giro erdaldun batean jaixo eta bizi izan dalako, eta orain familixa euskalduna sortu dabelako.

**Zeñi egingo zontzake elkarrizketa hau?**

Nere lankide bati.



Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:  
**maiatzetik aurrera, afariak egunero ematen hasiko dela.**

Ongi etorri denoi.



## Begarako futbol taldea, 1983

Begarako futbol talde nagusiak joan zen asteen, Durangon, aurtengo denboraldiari amaiera eman zion, eta badirudi datorren denboraldian ere Hirugarren mailan jarraituko duela. Duela urte batzuk ere Hirugarren mailan ibilita dago Bergara. Aste honetako argazkia, esate baterako, orain dela 17 urtekoa da, Juan Luis Arregi entrenatzailearen aginduetara Hirugarren mailan zegoeneko. Bestiak beste, Eibar, Barakaldo, Mondragon, Lemona, Erandio edo Anaitasuna taldearen kontra jokatu behar izan zuen denboraldi hartan. Bergarrek denboraldi txukuna burutu zuten, eta kategoriari eustea lortu zuten.

Goiko argazkia denboraldi aurreko lagunarteko partidu batean ateratakoa izan daiteke, "Villa de Bergara" udako txapelketan, hain zuzen ere. Denboraldi atarian lau talde izaten ziren lehian, eta bi kanporaketa jokatu ondoren,

finala izaten zen Agorrosinen. Ezin izan dugu jakin urte hartan nor eaman zuen txapeldu-nari zegokion kopa. Kuriosidade bezala, Jesus Mari Biain, gaurko taldearen entrenatzailearen anaia, Bergarako atezaina genuen orduan. Biainek hainbat denboralditan jokatu zuen mahoneroen atea defenditzen, eta zaletuek gogoa izango dute, ziur. Honako hauek dira argazkian agertzen diren jokalariak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Jose Angel Biain, Ibon Gallastegi, "Txelu" Arregi, Miguel Kalboetxeaga, Angel Pina, Juan Carlos Hernandez, Fernando Juaristi, Gotzon Odriozola eta Javi Bengoa.

**Makurtuta:** Iñaki Arana, Benjamin Arana, Agustin Lopez, "Piti" Madariaga, Josean Olabarría eta "Txundo" Aranburu.

*Argazkia: B.U.A. Roman Larrañaga fondoa.*

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
Ibargarai 2  
943 6 51 65

**Z**umelaga  
JATETXEA  
**58 urte zuen zerbitzura!**  
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

**M**  
**MEMESA**  
INDUSTRI HORNIDURAK  
Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino  
gehiago aseguratuta  
lasai-lasai errepidean



# Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulezo, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



9.600 Pta.



8.850 Pta.



2.350 Pta.



Graduatutako  
eguzkitako  
betaurrekoak

**9.500** pta-tik  
aurrera



**ESKLUSIBAN**

## Scooter 1

DENDA BAKOITZEKO

Zozketa



5.000 Ptzako EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

R.P.S. 164/99 zklia.



Elaboratzen dituen artikulu guztiak...  
...erabiltzeko modukoak dira. Oso bereak...  
...erabiltzeko modukoak dira. Oso bereak...  
...erabiltzeko modukoak dira. Oso bereak...



## MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA

J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Sukaldeko zoru eta paretetarako  
zeramika aukera zabalena.

Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6** URTEKO  
GARANTIA



**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.